

Merkatuaren segmentazioa

Gure proiektuaren bezeroak haur eskola eta eskola publiko zein pribatuak eta udaletxeak dira. Gure proiektuan bezeroak hiru segmentutan banatuko dira eskola publikoen kasuan udaletxeak eta Diputazioa izango dira eta haur eskola pribatuen kasuan hauen jabeak izango dira eta azkenik herri edo hiriko udaletxeak.

Alde batetik eremu naturalik ez duten haur eskoletara zuzenduko gara, bai eta eremu naturala duten baina hauek hobetu edo handitu nahi duten haur eskoletara, bestetik herri eta hirietako gune eta haurren parkeak naturalki egokitzeko honetaz arduratzen diren udaletxetara zuzenduko gara.

Printzipioz Araban egingo dugu lan baina etorkizunean beste probintzia batzuetara jotzeko asmoa dugu, horrela gure proiektuaren merkatua zabalduz.